

MOKO eta KAPMELE



Atzerapena Urban planeko ekimenetan

Trintxerpe XXI Hiritar Plataformak Urban planaren atzerapena gogor salatu berri du. Plataformak azaldutakoaren arabera, planean esku hartuko duten erakundeen arteko adostasuna lortzen ez bada, ez dira Europako Batasunak ezarritako epeak beteko. Ondorioz, La Herrera alderako aurreikusitako 5 milioi euroko diru laguntza galdu egingo litzateke.

Urban planaren bidez, Pasaiaiko badia eta inguru berritu nahi da. Donostiaren kasuan, planak Altzan, Larratxon, Bidebietan eta Herreran du eragina.

Proiektuaren lehen urratsak 2001ean eman ziren, Europako Batasuneko Batzordeak Pasaiaiko badiari laguntza ematea erabaki zuenean. Iazko udazkenean, plangintza kudeatzeko, Badia Berri elkarte sortu zen, eta uztailean, La Herrera aldean —Herrera, Trintxerpe eta Pasaiaiko portuaren arteko gunea— berritzeko plana jarri zen mahai gainean. Proiektuaren arabera, planak inguru honetako 42.000 metro karratutan izango luke eragina. Hala ere, Pasaiaiko portuko enpresen elkar-

teak eta UGT sindikatuak ez zuten begi onez ikusi egitasmoa, eta ondorioz, bertan behera uztea eskatu zuten. Hau ikusita, Trintxerpe XXI Hiritar Plataformak egitasmoarekin aurrera egiteko eskatu zion Portuko Agintaritzari, eta azken honek berritu beharreko inguru 35.000 metro karratura murriztea erabaki zuen. Baina, Donostiako Udala, Eusko Jaurlaritzza, Portuko Agintaritzza eta Europako Batasuna ez dira ados jarri, eta oraindik ez da toki hau birgaitzeko behin betiko proiekturik. Pla-

taformak salatutakoaren arabera, "adostasun faltak proiektua gauzatzeko diru laguntzak galtzea ekar dezake. Izan ere, Europako Batasunak ezarritako epeak ez betetzeko arriskua dago". Plataformako kideen hitzetan, "ez da zilegi birgaitzea soilik ikuspegi ekonomikotik begiratzea. Inguruko biztanleek zeresana dugu auzian, proiektuaren onuradun nagusiak gu gara eta". Plataformak, bestalde, egitasmoari buruzko informazio eza ere salatu du.

